

# BAGABILTZA

LHK-ko euskara-planaren buletina

## Urte amaiera esnatzeko garaia ere badenean

Abenduaren 18an ospatu genuen Bilboko egoitzan urtearen balantzea egiteko Euskara Saioa.

Jada ohikoa da saio hau gurean. Guztira 15 kide batu ginen, batzuk aurrez aurre eta beste batzuk telematikoki.

Urteko ekintzen errepasoa egiteaz gain, gerora begirako asmoez ere hitz egin genuen, eta amaiera aldera, ohikoa denez, jolaserako tartea egon zen.

**ETA GARRANTZITSUA DENA, GABONAK HELDU DIRA LAN HARREMANEN KONTSEILURA!!!**



Halaber, **abenduaren 3an** Nazioarteko Euskararen Eguna ospatu genuen LHKn, eta Garikoitz Goikoetxearen hitzaldia gozatu genuen lankide askok. Goikoetxeak eta lurrebasok aurkeztu duten *Esnatu ala hil* liburuan ageri den bezala:

***Noraez gisako batean dago euskararen indarberritzea. Ez dira garairik distiratsuenak.***

***Premiazkoa da beste bultzada bat, orain artekoaz haragoko pausoak ematea, baina zantzu gutxi dago nondik eta nola ekin, are gehiago aldaketa handiko garai hauetan. Helduleku izan nahi du liburu honek, euskararen bilakaera eta egoera zein den ohartzeko tresna. Begiak zabaltzeko ordua da, izan ere. Euskararen biharko ametsak esnatzea eskatzen baitu gaur.***

## HITZEN ARRANTZA

Errekan barrena, beltzez dauden hiru hitz hauekin bat egiten duten hitzak arrantzatu behar dituzu! Hirurak dira gure eguneroko lanean erabiltzen ditugun terminoak:



**DEPÓSITO**



**REPRESENTACIÓN**



**LICITUD**

Hitzen gainean klikatuz, beren esanahia eta testuingurua ikusi ahalko dituzu:

**BILTEGI**

**ORDEZKARITZA**

**ARTEKARI**

**IRAUNGIPEN**

**ZURIKETA**

**GORDAILU**

**HITZARMEN**

**JAULKITZAILE**

**ESLEIPENDUN**

**ZILEGITASUN**

## DENBORA

*Josemari Alvarez Martin*

Gai hauetaz arduratzen den lankideak "Bagabiltza"n parte hartzeko azkeneko langilea naizela gogorarazten dit. Izan ere, lankide guztiek parte hartu dute, eta martxan jarri zenetik (2021ean) hemezortzi ale argitaratu dira. Bost urte igaro dira ordutik.



Horretaz hausnartzen hasi naiz. Horrela da: lehenengo argitalpenetik bost urte pasa dira... Eta, nire kasuan, 15 urte igaro dira erakunde honetan lan egiten hasi nintzenetik.

Sinestezina! Nola pasatzen den denbora! Gogoan dut lan-etapa honen hasiera Donostiako erdigune-

an eta beste lankide batzuekin. Berriz ere denbora da lekua eta lankideak aldatzearen arduraduna. Denbora geldiezin da. Une batzuetan gure aliaturik handiena dirudi, eta beste batzuetan gure etsairik handiena...

Denbora. Hain zuzen ere, bere igaroaren ondorioz, erretiroa hartuko duten hainbat kideri agur esatea tokatzen zaigu orain. Nire zoriondesirarik sakonena haientzat etapa berri honetan. Eta baita aurretik egin zuten lankideentzat ere.

Desio hori gauzatu ala ez, denborak esango du... Denbora... beti denbora...